

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNU SAILA

4032

AGINDUA, 2024ko abuztuaren 2koa, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuarena, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Nahitaezko Desjabetzeko Lurralde Epaimahaietako kide letradu batzuk kendu eta kide berriak izendatzen dituena.

Nahitaezko Desjabetzeetarako Lurralde Epaimahaiak sortzeari buruzko irailaren 20ko 8/1987 Legearen 2.1.a) artikuluan xedatzen denez, bestek beste, Eusko Jaurlaritzako orduko Lehendakaritza, Zuzentza eta Autonomia Garapenerako Sailari atxikitako letradu batek egon behar du Euskadiko Autonomia Erkidegoko hiru epaimahai horietako bakoitzean, kide gisa. Sail hori, gaur egun, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuaren Saila da.

Nahitaezko Desjabetzeetarako Lurralde Epaimahaien jarduerari buruzko Erregelamenduaren (irailaren 20ko 244/1988 Dekretuak onartzen duenaren) 3.1 artikuluari jarraituz, Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritza, Zuzentza eta Autonomia Garapenerako sailburuak –gaur egun Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuak– izendatuko du 8/1987 Legearen 2.1.a) artikuluan aipatzen den nahitaezko desjabetzeetarako lurralde-epaimahai bakoitzeko letradua. Halaber, Erregelamenduko 8. artikuluan ezartzen denez, ordezkoko kide letradu bat ere izendatu beharko da kide titular bakoitzeko, eta horrek jardungo du kide titularra ez dagoenean, gaixo dagoenean edo hark bestelako eragozpenen bat duenean.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2022ko apirilaren 8ko Aginduaren bidez, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Nahitaezko Desjabetzeetarako Lurralde Epaimahaietako kide letraduak izendatu ziren. Zerbitzu Juridiko Nagusiko kideen artean egon diren aldaketek eta antolaketari lotutako beste aldaketa batzuek aurretik aipatutako izendapenetan eragina izan dutenez, kide anitzeko organo horiek behar bezala jardun dezaten, epaimahaietako izendapenak eguneratu behar dira.

Horiek horrela, aipatutako aginduetan xedatutakoaren arabera, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Nahitaezko Desjabetzeetarako Lurralde Epaimahaietako letradu hauek eta beren ordezkokoak kargutik kentzea, honako taula honetan azaltzen den bezala:

Nahitaezko Desjabetzeetarako Lurralde Epaimahaia	Letradu kide titularra	Ordezko Letradua
Araba	Sofía López de Aguilera Quintana	José María González de Castro
Bizkaia	Milagros Agirre Pedrayes	Luis María Moreno Díez
Gipuzkoa	José Luis Iparraguirre Mugica	María Antonia Barroso León

2. artikulua.– Nahitaezko Desjabetzeetarako Lurralde Epaimahaietako letradu hauek eta beren ordezkioak izendatzea, honako taula honetan azaltzen den bezala:

Nahitaezko Desjabetzeetarako Lurralde Epaimahaia	Letradu kide titularra	Ordezko Letradua
Araba	Sofía López de Aguilera Quintana	José María González de Castro
Bizkaia	Milagros Agirre Pedrayes	Egoitz Laburu Rodríguez
Gipuzkoa	María Antonia Barroso León	Iñaki Serrano Lasa

3. artikulua.– Agindu hau jakinaraztea Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Nahitaezko Desjabetzeetarako Lurralde Epaimahaien lehendakariari, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari eta kargutik kendu dituzten eta izendatuak izan diren kideei, jakinaren gainean egon daitezen eta dagozkion ondorioetarako.

4. artikulua.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea, publikotasuna emateko erabakiari.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko abuztuaren 2a.

Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburua,
MARÍA UBARRECHENA CID.